



IJITOEN ERKIDEGOA GIZARTERATZEAREN ALDE



**HEZKUNTZAN DAUDEN DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEKO KONPROMISOA**

PROPOSAMENAK 2015EKO HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO



Abenduak 20ko Hauteskunde Orokorrak, ezinbestekoak izango dira Espainiako berpizte aroaren eredu sozial eta ekonomikoa eraikitzeko. Krisi ekonomikoak, lan merkatuan izan duen efektuak eta honen aurka hartu diren neurriek, biztanleriaren maila askotan eragin handia izan dute. Hala ere, pobreziaren eta bazterketaren areagotzeak, ijitoena bezalako komunitatearen ahultasun eta gabeziak ezin ditu alde batera utzi. Komunitate honek bazterketa materiala jasotzeaz gain, gutxiespena, marginazioa eta diskriminazioa ere pairatzen ditu. Horrek, beren funtsezko eskubideak bermatzeko orduan eragin handia duelarik.

Jaso diren azken datuen arabera, Espainiako ijitoen erkidegoa 750.000 pertsona inguruk osatzen dute eta desberdintasunaren arraila gehien jasaten duen taldeetako bat da:



4 ijitotik 3 gizarte bazterketa egoeran daude, horietatik %54, bazterketa latzean, hau da, gainontzeko gizarteak pairatzen duena baino bost aldiz gehiago (%9,5) FOESSA 2014 txostenaren arabera.



Familien %4 txaboletan eta banandutako ingurunetan bizi da. (*Ijitoen erkidegoko etxebizitzari buruzko mapa*, 2007, Etxebizitza Ministerioa, FSG).



Gazteen eskola uztea %63,7an kokatzen da eta Espainiako biztanleriaren multzoarena %21,9koa da, (*Ikasle ijitoak bigarren mailako hezkuntzan: ikerketa konparatu bat*, 2013, MECD, MSSSI, UNICEF, FSG).



Ijitoen %37,6ak soldata bat jasotzen du. Espainiako biztanleriaren kasuan berriz, %83,6ak. (*Ijitoak, enplegua eta gizarteratzea*, 2011, FSG).

GURE PROPOSAMENAK ALDERDI POLITIKOEI HURRENGO LEGEGINTZALDIRAKO



Gizarte desabantaila egoera larri honen aurrean ezinbestekoa da ijitoen gizarteratzea bermatuko duten neurri zehatzak hartzea. Ijitoek pairatzen dituzten desberdintasunak, gainontzeko biztanleek jasaten dituztenen batz bestekoekin alderatuz, gizarteratze hori eta hiritartasun osoaren eskubidea erabili daitezkeen inguruetan ematen dira.

Hezkuntzari eman behar zaio lehentasuna, hori baita gizarte aldaketarako gakoa eta gure lehen eskaera, baina horrekin batera, etxebizitzaren, enpleguaren eta diskriminazioaren egoerari aurre egitea ere ezinbestekoa dela uste dugu. Beraz, hurrengo legegintzaldirako hau eskatu nahi diegu alderdi politikoei:

1 Haur ijitoengan eragina duen hezkuntza desberdintasuna murriztea une honetan dagoen eskola uzte goiztiarraren tasa erdiraino jaisteko helburua markatuz (%63,7 yik %32ra).

3 Soldatak dituzten biztanle ijitoen portzentajea %50era igotzea eta gazte ijitoei Gazte-enplegua sustatzeko dauden baliabideetara sarbidea bermatzea (Gazte Bermea eta beste batzuk).

2 Txabolismoa eta etxebizitzarekin lotutako banaketa desagerrarazi gizarte laguntza neurriak dituzten etxebizitza duin bat edukitzeko eskubidea bermatuko duten planen bidez.

4 Berdintasuna eta diskriminazioaren kontrako borroka sustatzea, Arraza edo Etnia Diskriminazioa Deuseztatzeko Batzordea berraktibatuz eta Tratu Berdintasunaren eta ez Diskriminazioaren aldeko Lege Integral bat onartuz.



Ijito Idazkaritza Fundazioa (FSG) kultura-arteko erakundea da,
irabazi asmorik ez duena eta hogeita hamar urte daramatzana lanean,
ijitoen erkidegoa bere osotasunean sustatzeko Espainiako lurralde osoan eta Europan ere.
55 lan zentro ditu une honetan 14 Autonomia Erkidegotan.

C/ Ahijones, s/n - 28018 Madrid (España) - Tel.: (34) 91 422 09 60 - Fax: (34) 91 422 09 61

www.gitanos.org

fsg@gitanos.org

Jarrai iezaguzu hemen:

Laguntzaileak:

